

Habitusa edo hizkuntzaren ezkutuko curriculuma Unibertsitatean

Eduardo Apodaka

Gizarte Psikologia Saila. UPV/EHU

eduardo.apodaka@ehu.eus

Sarrera-data: 2016-05-13 | Onartze-data: 2016-07-20

Laburpena. Beste edozein arlotan bezala, hizkuntzan ere ikasleek ez dute inondik inora ez habitus bera, ezta balio eta ideologia bera ere. Unibertsitateak nekez berdinduko ditu, ez da bere helburua eta ez du zertan izan. Baina prestakuntza eta titulazioak, usu Curriculuma deritzona, eman behar dituen unetik zehaztu beharko lituzke zein diren hizkuntzei dagokienez berariaz landu eta lortu behar diren gaitasunak eta zein mailatan. Hartarako, errez bereiz daiteke curriculum formala, ikasketa planetan eta abarretan agertu ohi dena, eta curriculum ez-formala. Labur esan, curriculum ez-formala unibertsitate-bizitzan gertatzen diren dinamika orok osatzen dute. Eta horietan bi eragile multzo dira nagusi: batetik, dispositibo gisa jokatzeko duten unibertsitate-joera eta ohiturak, eta bestetik, ikasleek ekarri duten habitus linguistikoaren egokitzapena. Azken alderdi horri arreta berezia eman nahiko nioke, Unibertsitatearen ekinbide linguistikoetako helburu zein bitartekoak zehazten laguntzeko. • **Hitz gakoak:** *Hizkuntza-habitusa, Curriculum Ezkutua, Hizkuntza-eremua, Collusioa, Unibertsitatea.*

Abstract. Just as in any other sphere, in language the students do not in any way share the same habitus, nor the same value or ideology. The University will have difficulty making them all the same; but that is not its aim nor should it be. Yet training and qualifications, known as the Curriculum, need to specify, from the moment they are given, the language competences that should be specifically worked on and achieved and to what level. That way the formal curriculum, which usually appears in syllabuses etc., can be easily distinguished from the informal curriculum. In short, the informal curriculum consists of all the dynamics that take place in university life. And in them two sets of players come to the fore: firstly, the university trend and habits that act as a device, and secondly, the adaptation of the linguistic habitus that the students bring. I would like to devote special attention to this second aspect, in order to help to specify both the aims and means of the University's language initiatives. • **Key words:** *Language habitus, hidden curriculum, language sphere, Collusion, University.*

1. SARRERA

I Artikulu honetan 2016ko uztailean UPV/EHUko Udako Ikastaroetan, Euskararekiko gizarte erantzukizuna akademiaren eta gizartearen kultura aldatetan izeneko ikastaroan egin nuen hitzaldiaren laburpena duzue. Alde horretatik, nire gogoeta honen helburua, ikastaro horrek izan zituen helburuetako batekin lotuta dago guztiz eta estuki. Honela zioen helburu hark: *Dozentziaren, hizkuntza kontzientziaren zein gizarte erantzukizunaren ikuspuntuetatik begiratuta, UPV/EHUk duen eginkizuna aztertzea*. Gutxienez, hausnarketarako proposamen eta tresna teoriko analitiko batzuen aurkezpena egin nahi izan nuen eta testuan horien haritik egindako gogoe-taren berri eman nahi dut. Nire asmoa, beraz, han eta hemen, helburu horren bidean, erantzukizun hori aztertzeke orduan nondik jo beharko genukeen eta indarra non egin beharko genukeen hausnartzea da.

Onar dezadan, bidenabar, pizgarri argi eta hurbila duela asmoak. EHUko jardunean urteak joan eta urteak etorri bizi izan dugun aldaketa ageriko batek behin baino gehiagotan eman dit zer pentsatu. Gero eta ohikoagoa da euskal taldeetako ikasleak erdaraz aritzea. Harreman formaletan euskaraz aritzeko joera badute ere, ez-formaletan erdaraz jarduteko joera nagusitzen ari dela dirudi. Ez da, noski, UPV/EHUko ikastegi eta ikastalde guztietan lege zorrotzean gertatzen den zerbait, nik Bizkaiko Campuseko inguru hurbilari begiratzen diot, baina zuzenean izan dudan eskarmentu honen arrastoan antzeko datuak ikusita ditut *Arrue* (Eusko Jaurlaritza, 2013b) eta ildo bereko ikerketetan: badirudi euskara esparru eta harreman formaletan ez-formaletan baino gehiago erabiltzen dela¹.

Aldaketa horretaz askotan egin dut berba lankide askorekin, eta esan behar dut funtsean azalpen berdintsua darabilgula: euskararen indar normatiboaren galera aipatzen dugu, euskara gero eta hautazkoagoa delarik, ikasleek ez dutela harreman formaletatik at euskara hautatzeko inongo beharrik, ezta premiarik. Ezarri beharko genuke premia hori unibertsitate curriculumean? Ez al da gure eginbeharretako bat hizkuntza gaitasunak ere titulazioek bermatu behar dituzten gaitasunen mailara helduko direla segurtatzea?

Abiapuntua, beraz, aski pertsonala da, nire bizipenetatik hasten baita gogoeta. Halaber, ez dut azterketa kuantitatiborik aurkeztuko. Kasuan oso interesgarriak eta esanguratsuak dira hainbat datu, adibidez, ikasle horien inguruen eta esperientzia linguistikoei buruzkoak edo euskaraz ikasten dutenen kopuruen bilakaerari buruzkoak. Baina, niri dagokidanez, zuzenean bizi behar izan dudan errealitate baten zergatia inter-

Helburu horren bidean, erantzukizun hori aztertzeke orduan nondik jo beharko genukeen eta indarra non egin beharko genukeen hausnartzea da.

Funtsean azalpen berdintsua darabilgula: euskararen indar normatiboaren galera aipatzen dugu, euskara gero eta hautazkoagoa delarik, ikasleek ez dutela harreman formaletatik at euskara hautatzeko inongo beharrik, ezta premiarik. Ezarri beharko genuke premia hori unibertsitate curriculumean? Ez al da gure eginbeharretako bat hizkuntza gaitasunak ere titulazioek bermatu behar dituzten gaitasunen mailara helduko direla segurtatzea?

pretazioetarako erabili ohi ditugun kontzeptuen bidez eman nahiko nuke; batez ere izenburuan jaso diren bi kontzeptuen bidez: *habitus* eta hizkuntzaren ezkutuko curriculuma.

Hartarako, (hipo)tesi nagusi bat defendatu nahiko nuke, eta galdera bat egin, nirekiko:

- Hizkuntza-curriculum ezkutua unibertsitatean aritzen diren guztien *habitus* linguistikoek osatzen dute: elkarri eraginez, konfigurazio eta dispositibo berriak eratuz... eta *habitus*en egokitzapen (berri)ak sortuz; hala bada, nola bideratu curriculum ezkutua *asmoz* eta helburu jakinak lortze aldera?

2. CURRICULUM EZKUTUA

I

2.1 Curriculum ezkutua edo hezkuntza-sistemen muga soziologikoak

Curriculum ezkutua aski kontzeptua ezaguna da. Eskuarki, Philip Jackson jotzen da kontzeptuaren asmatzailatzat. *Life in Classrooms* (1968) liburuan argudiatu zuen bazirela eskolako harremanetan hainbat balio, arau, ohitura, dispositio, itxaropen, betebeharrak sozial, zeinek bideratzen zuten ikasleen ikaskuntza. Kasu batzuetan dispositio horiek ageriko curriculumaren helburuak betetzen laguntzen dute, besteetan, berriz, oztopo eta muga izaten dira. Azken kasu hori izan da, hain zuzen, curriculum ezkutuari buruzko ikerketen gaia. Eta muga eta nahaste nahiz oztopo sortzaile den aldetik jorratu zuen gaia Benson Snyderrek, *The Hidden Curriculum* lanean (1970). Harrezkero, asko izan dira curriculum ezkutua erakundeen (eta sistema sozialaren) erreproduzioarekin lotu duten egileak. Hori izan baita gehien zabaldu den ikerketa eta analisi lerroa: curriculum ezkutua edozein erakunderen indar estrukturala da, erakundean sozializatuko den (kide bilakatuko den) edonork ikasi behar duen jokatzeko-estiloa eta jokatzeko-araudia, baina, ageriko curriculum baten itzalpean bai implizituki, bai isilpean, landu eta irakatsiko dena. Erakundearen alderdi informalekin nahasten zaigu, beraz, curriculum ezkutuari ideia, baina zehazki loturik hezkuntza edo sozializazio eginkizunei eta, jakina, irakaskuntza eta hezkuntzako erakundeak. Eskolari dagokionez, kontrako bidean doan ageriko curriculum formalizatu bat izan arren, eskola-bizitzak sistemaren edota ideologia nagusiaren balioak erreproduzitzen dituela ondorioztatzen dute hainbat eta hainbat ikerlarik (e.g., Bourdieu eta Passeron 1964, 1970; Apple, 1979, 1987; Woods, 1998).

Egia esan, curriculum ezkutua ez da beti ikusezina. Curriculum formaletik kanpo egiten dena oso agerikoa izan daiteke ondo behatuz gero, edota aurreiritzirik gabe behatuz gero. Baina, ezkutua ez da adjektibo desegokia erakundearen baitan dihardutenek askotan ez dutelako ikusten, edo ez dutelako hartaz hitz egiten modu esplizituan. Horrela bada, curriculum ezkutuari honelako definizio bat eman geniezaioke: *erakunde baten lanean eta egituraketan berez eta oharkabe erabiltzen diren mota guztietako arau eta azturen bilduma, betiere, esplizituki ezarri diren helburu eta eginkizunei eragiten dienean*. Erakundearen funtzionamenduko alderdi guztietan topatuko dugu curriculum hori, esan bezala, alderdi informala da: bizi-modu eta jardun arruntetan azaldu eta esplizitatu gabe ezartzen diren egiteko, pentsatzeko, sentitzeko eta esateko arauzko erak.

Jokatzeo era horiek guztiek maiz esplizituki eta publiko egin direnen alde jokatzen dute. Hala ere, curriculum ezkutuari interesak pizten da curriculum formalaren kontra jotzen dutenean: lagungarria bainoago, oztopo, muga edo eragozpena direnean. Izan ere, curriculum ezkutua ez da beti ageriko curriculum formalaren kontrakoa, osagarriak izan daitezke, elkar sostengatuz. Areago, curriculum ezkutua izan daiteke berariaz eta jakitun lantzen den curriculum, eta idatzia eta formalizatua “ideologia publiko hutsa” (eskola askoren kasuan, *idearioa* deritzona). Alde horretatik, kritika politiko eta ideologikorako tresna izan da kontzeptua: eraldaketa sozialean engaiaturiko erakunde/eskolaren zereginetan eraldaketa hura eragozten duten alderdiak sartzen dira curriculum ezkutuan. Curriculum ezkutuan hitz egiten den gehienetan salaketa da: balio eta ideologia ezkutua (berez doazen horiek) salatu behar dira, kontuan izanda gainera, esan barik doazen praktikak indartsuenak eta aldagaitzenak izan daitezkeela. Agerikoenak eta eragingarrienak izan daitezke, eta egiazko praktikak direla onartzeko zailenak ere bai.

Kontzeptua, beraz, kritikarako erabilgarria behar da eta eraldatzeko esku-hartzea bideratzeko. Eta hartarako, jarrera kritiko eta argiena, nire ustez, ez da curriculum bi daudela pentsatzea, baizik eta eskolak (oro har, erakundeak) helburu formalak izanda ere, helburu informal eta inplizitu asko dituela onartzea: ez dira helburutzat jotzen, baina eguneroko jardunaren produkzioak dira, eskola-bizitza integralaren emaitzak. Horrela ulertuta, eskola-curriculumak baditu bi alderdi: ezkutua (oraindik formalizatu eta ondo hausnartu gabea) eta agerikoa (formala, idatzia, eza-guna, hausnartua eta intentzionala). Alderdi bi horiek nola eragiten dioten elkarri aztertu behar dute eraldaketa soziokulturean inplikaturik dauden erakundeek: biek sustatzen dute erreprodukzioa eta erresistentzia, edo eraldaketa eta berrikuntza.

Curriculum ezkutuari interesak pizten da curriculum formalaren kontra jotzen dutenean: lagungarria bainoago, oztopo, muga edo eragozpena direnean. Izan ere, curriculum ezkutua ez da beti ageriko curriculum formalaren kontrakoa, osagarriak izan daitezke, elkar sostengatuz.

Eskola-curriculumak baditu bi alderdi: ezkutua (oraindik formalizatu eta ondo hausnartu gabea) eta agerikoa (formala, idatzia, ezaguna, hausnartua eta intentzionala). Alderdi bi horiek nola eragiten dioten elkarri aztertu behar dute eraldaketa soziokulturalean inplikaturik dauden erakundeek: biek sustatzen dute erreproduktzioa eta erresistentzia, edo eraldaketa eta berrikuntza.

Bistan da, curriculum ezkutuaren gaia hierarkia, desberdintasun eta zapalkuntza sozialekin lotuta dago. Baina, oro har, edozein eraldaketa sozial, kultural, edo ekonomikorekin lotu ahal da. Hizkuntzarekin ere bai, jakina. Curriculum formalean agertu ahal da zein izan behar duen erakunde baten usadiozko eta arauzko hizkuntzak edota hizkera motak, baina praktikan erabiltzen denak bideratuko du, ageriko iragarpen eta eskakizunek baino gehiago, zein erabiliko den.

2.2 Hizkuntza-curriculum ezkutua

Labur esan, beraz, curriculum ezkutua erakunde baten bizitzan eta jardunean helburu edo arau gisa formalizatu ez den guztia da edo izan daiteke, batez ere helburu publikoei, nahi izandako emaitzei edo ohiko jardunei kalterik eragiten dienean. Erakunde guztiak, erakundeak diren aldetik, euren eginbeharrak eta helburuak zein diren zehaztu beharra dute: zertarako antolatu eta eratu diren azaldu behar dute, publikoki egin ere. Helburu ofizial eta formalak zuzenak eta legitimoak diren modu berean, guztiz zuzena eta legitimoa ez den hondar bat sortzen dute. Hondar hura da curriculum ezkutua. Erakunde-bizitzan hondar hori egitura irmoena izan daiteke, eta eraginkorra.

Hala gauzak, hizkuntza-curriculum ezkutua berariaz formalizatu diren *helburuen kontra* doazen hizkuntza-praktiken, hizkuntza-dispositiboan, hizkuntza-disposizioen bilduma izango da. Horregatik, curriculum hori zehazteko, tentuz aztertu behar da zein diren helburu publikoak eta nolako estatusa duen curriculum formal eta publikoak. Egia da erakunde gehienak ez direla makiavelikoak, baina nahigabeen, jardute anbiguo eta kontraesankorra dute gehienek: curriculum (edo kasu batzuetan, kultura) ofizial, formal eta publikoa, kide gehienek sinesten ez duten zerbait izan daiteke, erakundearen legitimaziorako edo publizitate eta atxikimendurako tresna bat, esaterako. Horrez gain, zalantza kasu asko egon daitezke eguneroko jardunetan “azken helburuei” dagokienez.

Esan bezala, erakunde akademiko batek curriculum bikoitza du: alderdi formal eta ez-formalak ditu. Non kokatu behar dugu hizkuntza-curriculum? Hizkuntzak berariaz landu nahi dituen unibertsitateak, hala-beharrez, curriculum formalizatuan zehaztu beharko du lantze hori, baina oso argi eduki beharko du unibertsitateko elkarrekintza guztiak direla “curriculumaren parte osagarriak”.

Ikuspegi formalista batetik, erakundeak formalizatu duena izan behar du, horretarako eratu baita: bere buruari eta bertan parte hartzen dutenei esplizituki eta idatziz azaldukoari eutsi beharko dio. Kideek hori bera

egin behar dute, erakundeak dituen eginkizunak bete ditzan. Halako ikuspegi batetik, alderdi informala eta curriculum ezkutua bigarren mailako eragin galgarria edo ezabatu beharreko erresistentzia izango da. Hizkuntza-curriculum alderdi formalean aurkituko dugu: alderdi informaletik eragin galgarriak jaso ditzake, edo kontrara, lagungarriak, baina kasu guztietan kontrolatzen eta ebaluatzen ez diren eraginak dira. Gutxi asko, honela irudikatu dezakegu ikuspegi hori:

1 irudia: erakundearen ikuspegi formal-instituzionala (egilea).



Alderdi formaleko praktika eta eginkizunak kontrolatu eta ebaluatu beharrekoak izaten direnez, errazagoa da haiek curriculumaren bete-beharrekoak betetzea. Baina, hizkuntzei dagokienez, ez da batere seguru horiek eraginkorrenak izatea. Horrela, hainbat hizkuntza (edo hizkera maila) jokoan ditugunean funtzio eta esparru banaketa antolatu ohi da: baten bat izango da ofiziala, formala, jaso eta zaindua, besteren bat, berriz, arrunta eta informala. Hainbat hizkuntza ditugunetan, harreman linguistikoak (ez baitago harreman mota edo egoera bakar bat) ezin dira definitu eta mugatu esparru formalizatuan.

Horrenbestez, errez betetzen dira arau eta helburu formalak portaera instituzional, akademiko edo ez-pertsonal eta urrunetan (hau da, erakunde-rol arteko harreman publikoetan). Baina, noraino da dimentsio hori erakunde baten bizitzaren ohiko jarduna? Gauzak aldatzen dira rol arteko joko horietatik aldentzen garen neurrian. Orduan, bestelako erakundea agertzen da: pertsonen arteko ohiko harreman negoziatuen joko agertzen baita. Berrit diot, joko horrek lagundu edo oztopatu ahal ditu arau formalak betetzea, beti ez doa kontrara. Norabidea zein den, nolabait esan, harreman formaletatik informaletara joz argitu de-


Gauzak aldatzen dira rol arteko joko horietatik aldentzen garen neurrian. Orduan, bestelako erakundea agertzen da: pertsonen arteko ohiko harreman negoziatuen joko agertzen baita. Berrit diot, joko horrek lagundu edo oztopatu ahal ditu arau formalak betetzea, beti ez doa kontrara.

Noraino interbenitu behar du erakundeak eta nola bizitza informal hartan?

Ezin da dena formalizatu eta curriculum ofizialaren argitara eta kontrolpera ekarri.

zakegu. Bide hartatik, 2. irudian irudikatu dudan bestelako erakundeak agertzen zaigu: erakunde sozio-kulturala, edo egiturazko dimentsioak kontuan harturik, psikosoziala. Han alderdi ez-formalak dira eragile eta azpi-egiturazkoak.

2 irudia: erakundearen ikuspegi sozio-kulturala (egilea).



Unibertsitateko bizitza nire ustez hurbilago dago bigarren grafikotik. Horrek esan nahi du hizkuntza-helburuak ezin direla arlo formalera mugatu, hau da, arlo formalean bermatu behar diren eginkizunak eta lorpenak arlo informalean ere landu eta sustatu behar dira: ezinbestez, arlo informal horretan eta harekin doan curriculum ezkutuan egiten baita unibertsitate-bizitza gehiena. Jakina, bigarren irudia partziala da, erantsi beharko genioke eragin gezi bat alderdi formaletik ez-formalera. Izan ere, ikuspegi integral batean alderdi biak dira eragile eta eraginak, biak aritzen dira elkarren eratzailer.

Jakina, horrek denak arazo eta zalantza asko ekartzen dizkigu. Noraino interbenitu behar du erakundeak eta nola bizitza informal hartan? Ezin da dena formalizatu eta curriculum ofizialaren argitara eta kontrolpera ekarri. Ezin da hondar hori formalizatu, hori egin ahala beste nonbaitetik sortuko lirateke harreman ez-formalizatuak eta curriculum ezkutukoak. Ezinezkoa da, totalizazio eta agintekeria estueneren kasuetan ere, erakunde barneko bizitza osoa formalizatu eta kontrolatzea. Eta ez da desiragarria gurea bezalako unibertsitate batean.

Hartaraino heldu barik, egin liteke hautaketa estrategikorik? Alegia, helburu nagusiei zuzen-zuzenean eragiten dieten aldagaietan eragin ahal da zuzeneko kontrol eta ebaluaziotik kanpo? Bistan da, alderdi in-

formalean ezin dela jardun alderdi formalean egiten den bezala, curriculum ezkutua ez dela neutralizatzen edo positibo bihurtzen, esplizituki eta zuzenki arautzen eta kontrolatzen. Bestela esan, kontrolatu eta ebaluatu gabeko zeharkako jardunbideak sustatuz eta, batez ere, jardun-eremuak antolatuz eta zabalduz eragin ahal zaiola ezkutuko curriculumari eta alderdi ez-formalari.

Labur, curriculum ezkutua asmo, proiektu, diziplina, plan, (ebaluatzeko, kontrolatzeko, egiaztatzeke...) bihurtu ez dena izaten da, errez esan; oraindik harrapatu ez dagoen hondar bat, kontrolatzen ez diren eragileen hondarra. Hondarra edo baliabidea. Izan ere, helburu eta eginkizun ofizial eta esplizituen alde jarri ahal ditugu aldagai horiek guztiak: ohiturak, praktika arruntak, balio zabalak, ohiko pentsatze erak, eta hizkuntza-praktikak izanda ere. Curriculum esplizitu eta intentzionalaren alde direnak zeharka sustatu ahal dira eta formalizatutako jardueretatik kanpo, lagungarri izan daitezkeen jarduerak ez-formalak sortu ahal dira. Hori dena, hala ere, curriculumaren helburuak lortzeko behar diren alboko edo esan gabeko gaitasunak (maiz, bitarteko gisa agertuko direnak) formalizatzeko, antolatzeke, irakasteko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko aukera baztertu barik. Azken hori egin ahal izateko, behar-beharrezkoa aitorten diskurtsiboa: diskurtsoz eta zentzuz jantzi behar dira helburu eta bitarteko helburu horiek guztiak.

Kontrolatu eta ebaluatu gabeko zeharkako jardunbideak sustatuz eta, batez ere, jardun-eremuak antolatuz eta zabalduz eragin ahal zaiola ezkutuko curriculumari eta alderdi ez-formalari.

3. IKASLEEN *HABITUS* LINGUISTIKOA

I

3.1 *Habitus*, *collusio* eta eremu kontzeptuak

Orain, hurbil gaitezen gaira aktoreen ezaugarri sozialetatik. Hartarako, ikasleen *habitus* linguistikoa zer izan daitekeen azalduko dut (bigarren maila batean utziko ditut irakasle, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta unibertsitateko beste aktore zenbait; hortaz, azterketa partziala egingo dut). *Habitus* kontzeptuaz baliatuko naiz curriculum ezkutua osatzen duten eragileei argia emate aldera. Ez dira denak *habitus*ekoak, jakina, baina ikusiko denez, elkarri estuki loturik daude kontzeptu biak: *habitus*ak eta curriculum ezkutua, biak ala biak erabiliko ditugu unibertsitateko (edo beste erakunde bateko) asmo eta helburu esplizituak zergatik ez diren betetzen azaltzeko.

Tesi moduko batdefendatuko dut *habitus* linguistikoari dagokionez: Ikasleen *habitus* linguistikoa euren *habitus* akademikoaren alderdi bat da. Baina horra iritsi aurretik, kontzeptua bera azaldu beharko dut.

Berez, aztura(*hexis*, *habitus*) kontzeptuak historia luzea du filosofian, psikologian edo soziologian. Pierre Bourdieu soziologoak ukitu berri

Bourdieuena hitzetan, habitusajarduteko, sentitzeko eta hautemateko joeren multzoa da (ulertze, sentitze, balioeste eta jokatzeko-erak). Joera, dio, irauten dutelako, errepikatzen direlako, norberaren portaera egituratzeko jotzen dutelako, baina beti testuinguruaren arabera egokitzen.

bat eman zion eta hori nabarmentzeko latinezko hitzari eutsi zion: *habitus*. Bere lanen ardatza izateraino erabili zuen Bourdieuk kontzeptua (ikus, esaterako: Bourdieu 1980, 1982, 1984, 1987, 1994, 1997). Bourdieuren hitzetan, *habitusajarduteko*, sentitzeko eta hautemateko joeren multzoa da (ulertze, sentitze, balioeste eta jokatzeko-erak). Joera, dio, irauten dutelako, errepikatzen direlako, norberaren portaera egituratzeko jotzen dutelako, baina beti testuinguruaren arabera egokitzen.

“Les conditionnements associés à une classe particulière de conditions d’existence produisent des *habitus*, systèmes de dispositions durables et transposables, structures structurées prédisposées à fonctionner comme structures structurantes, c’est-à-dire en tant que principes générateurs et organisateurs de pratiques et de représentations qui peuvent être objectivement adaptées à leur but sans supposer la visée consciente de fins et la maîtrise expresse des opérations nécessaires pour les atteindre, objectivement «réglées» et «régulières» sans être en rien le produit de l’obéissance à des règles, et, étant tout cela, collectivement orchestrées sans être le produit de l’action organisatrice d’un chef d’orchestre” (Bourdieu, 1980: 88).

Alegia, *habitus* disposizio iraunkorren sistema da, aktoreak bizi-inguruan topatu dituen egiturak (joko-praktika egituratuak: harreman sistemak, bizi baldintzak, praktikak, kapitalaren banaketa...) bere egiten ditu praktikan, horiek praktikatzen izaten da, eta horrela egituratzaile bihurtzen ditu. *Habitusak* disposizio iraunkor horien sistemak dira: subjektuak gizarte-ingurua zertzen duten egiturak bere egiten ditu bere burua sortu ahala; bere gustu, ibilera, praktikak, gorpuzkerak, balioak... izango dira. Hitz batean: nor bera izateko moduak.

Ikusten denez, *habitus*a osatzen duten jokatzeko disposizioak jendartean sortuak eta jasoak dira, nork bere egindakoak norbait izateko “joko-eremu” batean, jendartean norbait izatean. Horrenbestez, *habitus*a egitura sozialen subjektibazioa da, baina praktiketan atzeman eta behatu ahal ditugu. Praktikak dira, errealitate-egileak nonbait (praktikarako disposizioak direla ondorioztatzen dugu behin eta berriro errepikatzen direlako eta joko sozialetan balio egonkorra eta aitortua dutelako). Norberarengan *habitus* eta *habitat* batzen dira, izan ere, norberaren disposizioak inguruko jendarte-dispositiboetan parte hartzearen eta han izatearen ondorioak dira.

Bestalde, disposizio subjektiboak ez dira, zehazki, “egitura kognitiboak” ez dira kontzientzia-modu hutsak, praktikaren eskemak gorputz disposizioak dira gehienbat: sena edo ulermena esango genuke. Horregatik,

nabarmentzen zuen Bourdieuk, habitusak dispositibo (edo egitura) sozialak zirela, baina aktoreek praktikan jokatuta eta gorpuztuta. Horrela, jendarteko arauzko joko-praktikak praktikan jokatuz eta bere eginez (gorpuztuz) sortzen ziren *habitusak*: gorpuztutako egitura kognitiboak eta hautemate-eskemak, ikasitako leheneste-sistemak eta jarduteko arauak, edo sinpleago: ideiak, gustuak, balioak eta arauak; edo Bourdieuk esan bezala, zentzumen edo sen praktikoa.

Horiek horrela, kontzeptuaren muina nabarmendu nahi dut: norberaren jakite eta inguru sozialaren arteko lotura. Jakitea modu guztiz praktikoa hartu behar dugu. Bestela ezin da izan: jakitea zerbait egiten eta zerbaiti eragiten jakitea baita. Bai eta ustez eduki kognitibo huts batez ari garenean ere, eduki horrekin egiten dakigunak ematen baitu beti dakigun eta ez dakigunaren neurria. Eta, Bourdieuren bidetik ere, jakite hura ez da adimen logiko eta erro gabekoa, testuinguru sozial batean jokatu behar duen gorputz baten jakitea da. Hala esan, jakitea jardutean, egitean, edo ekitean, nahi eta espero diren ondorioak sortzen asmatzea baino ez da, eragiketa hura behin eta berriro egin dezakegunean. *Habitusa*, horrenbestez, jakite soziala da; elkarri aitortu eta onartu dizkiogun jokaerak bereganatzearen ondorioa.

Bourdieuk bere burua ezagutzen ez duen ezagutza zela zioen. Praktika eta metapraktika (edo ezagutza erreflexiboa) bereizten zituen. Ondo jokatzen dakienak ez du zertan jakintza haren gainean gogoeta berezirik egin. Baina, onarpen hori egin ahal izateko, balioeste-eskemak aplikatu behar dira eta jakin behar da noiz eta nola justifikatu (berriro: modu guztiz praktikoa, alegia, justifikatu egin behar da). Jakina, ez eguneroko testuinguru edo jokatzeke eremu arruntetan eta guztiz ohikoetan.

Edozein praktikak du testuinguru egokia eta desegokia. Praktikek jokalaldi-hurrenkera eta multzoetan dute egokitasuna hartzen, arizaleek badakite horren arabera egoki eta eraz jokatzen. Roger Barkeren printzipioari jarraituz, *abagunekotasuna (occasionalism)* dei diezaiokegu jakintza metapraktiko hari: postetxera doanak *postetxe(ko) zurrean* edo *antzean* jokatzen du. Jokoa postetxea da, badakigu zer egin eta nor garen hartan (Bruner, 1990: 48). Bestela esan, praktika sozial oro egoerako dispositibo sozialen eta gorpuztutako disposizioen arteko elkarrekintzan sortzen dira. Sen sozial praktikoa ez da soilik nola jokatu jakitea, nola egokitu jakitea; *behar izanez gero*, jakin behar da nola kontatu eta justifikatu erabakiak eta jardunak. Eta batez ere, egiten dugunaren zentzua sentitu behar dugu, haren zentzuaren baitan izan behar dugu.

Jendarteko arauzko joko-praktikak praktikan jokatuz eta bere eginez (gorpuztuz) sortzen ziren habitusak: gorpuztutako egitura kognitiboak eta hautemate-eskemak, ikasitako leheneste-sistemak eta jarduteko arauak, edo sinpleago: ideiak, gustuak, balioak eta arauak; edo Bourdieuk esan bezala, zentzumen edo sen praktikoa.

Habitus izan ditugun harreman sozialen emaitza baldin bada, hainbat harreman-eremutan bizi behar duenak hainbat habitus izango ditu, edo bestela esan, norberaren habitusa logika anitzeko disposizio eta gaitasun.

Metapraktika modu hori sartuz aurre egiten diogu *habitus* kontzeptuari egin zaion kritikarik nabarienari: mekanizistegia omen da, soziologizistegia eta deterministegia (Jenkins, 1992). Jendea, diote kritikoek, ez da jendarte-inguruen klon hutsa. Eta ez du izate sozial bakar bat (*habitus* bakar bat, nolabait esan) (Lahire, 2003). Baina, *habitus*a mekanismo sortzailea da (eragilea izateko sortzailea), ez erreprodukzio hutsa (Calhoun, 1993). Are gehiago, Bourdieuk ulertarazi nahi zigun aktore sozialak ez direla indar mekanikoen mendeko partikulak, baina ezta arrazoi hutsez bere burua gidatzen duten subjektu kontzienteak ere. Sen praktikoa duten jarduleak, arizaleak, dira. Bestela esan, aktore sozialak egoeran-egoeran senez zer egin, nola moldatu, dakiten aktoreak dira. Badute, beraz, erreflexibotasun pragmatiko bat (Lahire, 1998; Corcuff, 2003; Farrugia, 2013). Hori bai, nork bere unibertso sozialetan izandakoa eta ikasitakoa izango dute eskura. *Habitus*ak nor garen dio: zein diren gure gaitasun sozialak, zein den gure kapital soziala, zein den gure izaten jakitea, zein den gure deliberatze arrazionalerako ahalmena... Hitz gutxitan, gizarte bizitzan aritzeko ditugun gaitasunak dira *habitus*a osatzen duten disposizioak, bai eta gaitasunak nola moldatu eta erabili jakiteko behar dugun gaitasuna ere (Crossley, 2001). Hori dena, joko sozial jakinetan aplikatu eta egokitu beharko dugu. Bistan da, *habitus*a izan ditugun harreman sozialen emaitza baldin bada, hainbat harreman-eremutan bizi behar duenak hainbat *habitus* izango ditu, edo bestela esan, norberaren *habitus*a logika anitzeko disposizio eta gaitasun praktikoz osatuta egongo da (Lahire, 1998, 2003).

Beraz, egoera zein den omen da gakoa. Nola eraiki eta definitzen den egoera aztertu beharko genuke eta horietan zein diren senezko, arauzko, zentzuzko jokaera era onartuak. Alde horretatik, Bourdieuk beste bi kontzeptu eskaintzen dizkigu: *collusio*a eta eremua.

Lehenengoak argitu nahi du zertan den egoeraren definizioa eta berezikiago, nola den posible joko soziala, zein den joko sozialaren azpia. Irakur dezagun azalpen bat:

«...*habitus*a da sozializatutako gorputz batek erraietatik gorputz sozialari dion atxikimendua (...) baldintza eta baldintzaz berdin produktu diren eragile guztien arteko *collusio* implizitubaten funtsa da, bai eta taldearen transzendentziaren, izaeren eta egikeren esperientzia praktikoa, izan ere, **bakoitzak parekoen portaeran bere portaeraren onespina eta legitimazioa («horrela egiten da») aurkitzen ditu**, eta ordainean besteen portaera onesten eta behar izanez gero artezten du. Juzgatzeko eta jarduteko moduei buruzko adostasun horrek ez du kontzientzien komunikazioa behar, are gutxiago hitzarmenezko erabakirik,

collusio hau **elkar aditze praktikoa** baten euskarria da» (Bourdieu, 1997: 210; egileak euskaratua).

Testuan nabarmendu ditudan hitzetan dugu funtsezkoa. *Habitus* berdin edo antzekoen (baldintza eta baldintzamen du berdin produktu direnak) arteko jokia da *collusioa*. Joki horretan elkarri onartu eta gaitzesten diozte portaera jokalariek, badakite zein den jokia eta zein diren jokaldi onargarriak, eraginkorrak edo baliokoak eta zein ez. *Collusioa*, beraz, *habitusen* arteko elkarrekintza eta egokitzapenen produktua da. Bestela esan, dispositibo soziala da. *Habitusak* norberarengan gorpuztu diren dispozizioak dira, hau da, norbera egituratzen dute jokatzeko erak eta joerak. Joki sozialean gauzatzen dituelarik era horiek egitura sozialak bilakatzen dira, edo hobe esan, joki sozialearako dispositiboak. Bourdieuk esan bezala, egitura egituratuak egitura egituratzaile gisa jokatzen dute.

Uste dut *collusioak* argitara eramaten duela sozialaren izaera. Soziala da ezinbestez beste batekin egin beharrekoa, beste batekin, hau da, sozio batekin egin edo izanarazten den oro. Soziala den edozertan gutxienez bi parte aurkitzen ditugu, biek dituzte hainbat dispozizio, sozialean parte hartzeko hainbat era, hainbat jakintza eta gaitasun: hainbat *habitus*. Horrenbestez, *collusioa* halako egituraketa edo antolamendua da. Gizakien kasuan, gainera, dispozizioak aurretiko joki sozialean hartu, trebatu eta beretu diren joki-erak dira.

Erakunde sozialak, esaterako, *collusioetan* oinarritzen dira. Erakundearen *collusioa* ondo bereganatu duten jokalariek jokatzen dutenean, bere *habitus* instituzionala aktibatzen dutenean, erakundearen jokia bere horretan betetzen da. Erakundeetan bezala, edozein joki sozialean logika bera dugu: jokia sen praktikoa bizi duten jokalariai behar dira. Alde horretatik *habitusa* da lehen jorratu dudana curriculum ezkutua. Zehatzago: erakunde esparru batean, lege, konbentzio eta arau formalek definituriko esparru batean, ikasleek eta irakasleek dituzten dispozizio multzoetatik sortzen da, elkarrekintzan, eskola dispositibo “ezkutua”.

Azkenik, eremu (*champ*) kontzeptuak osatzen du azaltzen ari naizen ikuspegia. *Champ* erabiltzen du Bourdieuk joki sozial berezietako eremu edo esferaren kontu emateko. Gizarteak hainbat eremuz osatutako multzo konplexuak dira. Eremu bakoitzean joki-arauek bereziak daude, joki berezi bat dago. Unibertsitatea edo, oro har, mundu akademikoa eremutatzen jo dezakegu. Horretan, beraz, hainbat arau topatuko ditugu, bertan zer egin behar den zehazten dutenak; eta hainbat balioeste-kode: jokaera, toki, kargu, sinbolo, tresna edo objektu bakoitzak joki hartan

Eremu sozial bakoitzean norberaren habitus linguistikoak, alegia, norberaren hizkuntza-produkzioak balio bat edo beste izango du. Hau da, hiztunek euren gaitasunen arabera kapitala dute, edo ez.

**Ez dago
hizkuntza-
merkatu hutsa
denik, ez dago
merkatu
linguistikoa
hutsik.
Hizkuntza-
ondasun edo
kapitala ez da
inoiz soilik
linguistikoa:
identifikazio
kolektibo eta
indibidualak
sartzen dira
tardean eta
haiekin, jakina,
ondare horiek
(etekin sozialak,
psikologikoak,
ekonomikoak...)
lortzeko
linguistikoa ez
diren bideak.**

zein balio duen esango digutena. Hori dena, eta eremuak dispositibo sozialak diren aldetik, jokalariek bere *habitus* bihurtu eta eremuko bizitzan parte hartzean ostera gauzatuko dituzte dispositibo sozial (eta objektibo) gisa. Horrenbestez, *habitusa* aktoreen sortze- eta jokatze-gaitasunak dira, eremua, berriz, egiturazko harremanen sistema: bertan egokitu behar dira disposizioak eraginkorrak izan daitezen (Farrugia eta Woodman, 2015: 634).

Ezagun da Bourdieuk merkatua eta kapitalaren metaforak erabili zituela eremuen analisietan². Bourdieu-k “praktika ororen ekonomia” proposatu zuen. Horrelako ekonomia batek kontuan hartu behar lituzke jendarteko balio mota guztiak, ez soilik ekonomikoa. Praktiken logika, bistan da, ez da bakarrik logika ekonomikoa, alderantziz, diskurtso eta ekintza-eremu bereziak atontzen dituzten logika asko ditugu. Logika horiek ezartzen dute eremu bakoitzean zerk duen balio, zer den kapitala eta zer ez. Gureari dagokionez, hizkuntza-merkatuaz hitz egin zuen (Bourdieu, 1982, 1984, 2002). Bourdieu nabarmendu nahi zuen hizkuntza guztiak eta hitz egiteko modu guztiak ez dutela inondik inora estatus eta balio bera. Hizkuntzetan ere kapitalismo antzeko zerbait dugu: erakunde nagusiek eta botere-taldeek hizkuntza batzuk balioesten dituzte, beste batzuk gutxiesten dituzten bitartean. Jakina, eremu sozial bakoitzean norberaren *habitus* linguistikoa, alegia, norberaren hizkuntza-produkzioak balio bat edo beste izango du. Hau da, hitzunek euren gaitasunen arabera kapitala dute, edo ez. Jokoan hitzun legitimoa dena, jokoan behar den kapital linguistikoa duelako, jokalaria sozial legitimatua izango da. Horrela, *habitusa* kapital eta arautzat hartu ahal dugu: jakintza praktikoari (egiten jakiteari eta egiteari) joko-eremuan besteek ematen dioten balioa eta handik datorren ahalmen edo eragimena.

Kapitala deritzoguna, kasu honetan, performantziarako (jardun egokirako) jakintza praktikoa da, gaitasuna, alegia. Kapitala izaten da, beraz, eremuko jokalariek halakotzat jotzen duten gorpuztutako hizkuntza-kompetentzia praktikoa eta sen eta kalkulu estrategiko metapraktikoa. Aitortutako kapitalak efektuak ditu, eraginkorra da; izan ere, jokoan aritzeko “baimena” izateaz gain, aginduak emateko aitortpena izan daiteke: autorizatze bikoitza, beraz.

Egia esan, merkatuaren ideari hainbat eta hainbat kritika egin zazikio. Besteak beste, argitu beharko genuke zein nolako merkatua den hizkuntza-merkatua, edo zehatzago: gure inguruko hizkuntza-merkatua, ez baitago merkatu logika bakarra. Eta aintzat hartu beharko genuke merkatuan lehiatzen edo negoziatzen ari direnak ez direla logika bakar

baten arabera aritzen, logika hori arrazionala izan ala ez. Merkatuaren ideiarekin atzetik hala-holako indibidualismoa egon daiteke: hizkuntza banakoen jabegoa izango litzateke, haiek erabakiko lukete zein hizkuntza erabili kontsumoko produktu bat izango balitz. Hala izanda ere, banakoei ondo egituratuta dagoen eta lege zein arau mugatzaileak dituen merkatu batean jardungo lukete. Eta ez merkatu libre batean, non, teoria hutsean, hizkuntzen balioa zein erabilgarritasuna banakoen elkarrekintza libreetatik sortu liratekeen. Beste arlo batean, erlijio merkatuan, J. Stolzek (2007) egindako oharpenak kontuan hartu behar ditugu: tradizioak edo errutina sozialak (*habitusak*, alegia) bideratzen dute eremu batean egiten diren hautuak. Eta horrez gain, balio-hierarkia ezarrita daukate eremuek. Ezin da pentsatu merkatuan aritzen direnak libre eta berdinduz aritzen direnik, ezta ekintzaile arrazionalak direnik ere, aldezturik desberdintasunak ezarrita daude, eta estatuak edo beste botere batzuek ezarritako kapital banaketa ere bai. Azkenik, ez dago hizkuntza-merkatu hutsa denik, ez dago merkatu linguistiko hutsik. Hizkuntza-ondasun edo kapitala ez da inoiz soilik linguistikoa: identifikazio kolektibo eta indibidualak sartzen dira tartean eta haiekin, jakina, ondare horiek (etekin sozialak, psikologikoak, ekonomikoak,...) lortzeko linguistikoak ez diren bideak. Inkoherentziak, zinismoak, anbiguitasunak, kalkulu estrategikoak, eta abar, erabat normalak dira hizkuntza-eremuan. Hizkuntza-eremuak beti izaten dira eremu politikoak, botere-harremanez beteak. Bourdieuk horri begiratzen zion merkatuaren analogia erabili zuenean. Horregatik ere, hizkuntza-eremuak eta bertako trukeak, praktikak, egiturak eta abar aztertzeko erantsi behar diogu esandakoari onargarritasun sozialari eta balio komunei buruzko tresna analitikoaren bat. Aurrerago saiatuko naiz zerbait planteatzeko.

3.2 Hizkuntza *habitusaren* ikuspegitik

Ikusi dugunez, ohiko hizkuntza-praktikek egitura moduan jokatzen dute, hau da, hizkuntza-portaera egituratzen dute, baina ez jendeen pertzepzio eta baloraziorik gabe (gogora dezagun: praktikarekin batera metapraktika edo erreflexibotasun pragmatikoa aurkituko dugu beti; alegia, jardutearekin batera, jarduteko jakintza eta sena). Bere buruari eragiten dion prozesu zirkularra da: erruz zabaltzen diren praktikek egituratzen dute portaera eta ohiko portaera izaki legitimatzen dira. Aldi berean *diradispositiboak* edo joko-eremu arautuak eta araugileak, eta *disposizioak* edo hiztunen jokatzen jakitea eta jokaera sentitzea.

Habitusa, esan dut, disposizio horiek dira. Beraz, *habitusa* ez da zuzenez portaera edo jokaera. Horrek gogora ekartzen digu konpe-

Simple eta azkar esan:
psikosoziolinguistikan kokatu beharko da habitusa, eta hizkuntza aztertzerakoan ikuspegi integral hura hartu beharko dugu.

**Hizkuntza-
praktiken
eragileak bi
mulzotan
topatuko ditugu:
batetik, aktoreen
disposizioetan,
bai hizkuntza-
gaitasuna, bai
hizkuntza
erabiltzeko
ezagutza
pragmatikoa;
bestetik,
egituretako
dispositiboetan
hizkuntzen
arteko
harremanak,
erabilera-arauak,
balio sozial
zabalduek eta
finkatuak, eta
abar.**

tentzia eta performantzia arteko bereizketa, edo bestela esan, gaitasunen eta jardunen artekoa. Jarduna ez da soilik banakoen ezaugarrien emaitza, hor elkarrekintzak eta haietatik sortzen eta birsortzen diren egiturek ere badute eginkizun handia. Ikuspegi sozio-estrukturala ezin dugu ahaztu, beraz. Baina, hizkuntza-jarduna (eta haren aldaketa) *habitusetik* aztertzeke, beste alderdi bat ere hartu behar dugu kontuan. Nire ustez erabateko garrantzia duen alderdi bat: identifikazio afektiboa, atxikimendua.

Funtsean, hizkuntza deritzoguna hitz egitea da, eta hitz egitea gorputz arteko elkarrekintza da. Soziala bezain psikikoa, esan genezake: oso osorik sozio-afektiboa, ez soilik kognitiboa eta indibiduala. Aldi berean izaten da elkar hartze (elkarte)aren lokarria eta nor bere burua adierazte eta norbait izatearen bilbadura. Ez da, horrenbestez, baliabide huts bat, nahiz eta baliabide eta kapitala izan. Baina, hobeto ulertzeko hizkuntzak zein eginkizun duen norberaren bilbadura hartan, hiztunaren historiala ezagutu behar dugu: inguru eta bilakaera sozial batean kokatu behar dugu. Esaterako, jakin behar dugu zenbat hizkuntza dakizkien, zenbat hitz egiten diren bere bizi-inguruneetan, haietan zenbat hautematen dituen eta hizkuntza horiek zein eginkizun eta zein erabilera-tasa duten, edo inguruneek zein praktikek zein balio duten jendarte zabalean, eta abar. Sinple eta azkar esan: psikosoziolinguistikan kokatu beharko da *habitusa*, eta hizkuntza aztertzerakoan ikuspegi integral hura hartu beharko dugu.

Hizkuntza-jarduerak aldatzeari dagokionez, maiz baztertzen ditugu aktore eta egitura arteko loturak eta harremanak. Hizkuntza-praktiken eragileak bi mulzotan topatuko ditugu: batetik, aktoreen disposizioetan, bai hizkuntza-gaitasuna, bai hizkuntza erabiltzeko ezagutza pragmatikoa; bestetik, egituretako dispositiboetan hizkuntzen arteko harremanak, erabilera-arauak, balio sozial zabalduek eta finkatuak, eta abar. Bi mulzoen arteko harremanetan sortzen da, beraz, hizkuntza-jardunak, hizkuntza-praktika zehatzak.

Honen guztiaren haritik ohar bat, pertsona baten gorputz disposizioak aldatzea joko sozialetan pertsona horrek dituen balio, ahalmen eta identitatea (nor den joko hartan) aldatzea da. *Habitusa* praktikan norbera den edo izan daitekeen gaitasunak dira, nork bere "hizkuntzatik" kanpo bere burua galtzen du (eta ez soilik kognitiboki..). *Habitusa*, gogoan izan, norbera izateaz gain, norberaren balioa (kapitala) ere izan daiteke... Ikasleek galduko al dute kapital hori? Edo, aldaketa hartan kapital berriak eta pertsonalak bezain komunak sortzeko aukerarik eta biderik topatuko al dute?

4. IKASLEEN HABITUS LINGUISTIKOA ETA ERABILERA LEGITIMATUAK

Horrenbestez, ikasleen *habitus* linguistikoa ibilbide sozial batzuen emaitza da, etengabe lantzen eta eraldatzen ari den gaitasun multzoa, baina, batez ere, jendartean izateko jakintza praktikoa: egiten jakitea. Ez da konpetentzia instrumental hutsa, hala ere, norberaren balioa eta norberaren izaten jakitea eta zer eta nor izan sentitzea baita. Eta ez da, nabarmendu dudan moduan, joko sozialetan automatikoki piztuko den erantzun edo erreakzioa; ez da jokaera inkontziente soila. Praktikarekin batera, edo egiten jakitearekin batera, aktoreek praktikaren erabilera, balioa, zentzia eta ondorioak aurreikusteko eta egokitzeko jakintza bereganatzen dute.

Hori dena esaldi ausartegi honetan bil genezake: *esadazu norekin eta nola ikasi duzun hizkuntza eta esango dizut norekin eta nola erabiltzen duzun*. Jakina, gehiegikeria da. Horrek disposizioen erabilera edo aktibazioei buruz zentzuzko zerbait esan liezaguke, baina egoera soziala kontuan hartu ezean ezer gutxi egiazko jardunari buruz. Disposizio eta dispositiboen arteko elkarreragineandago gakoa. Baina gerta daiteke, gertatzen denez, bai disposizioak, bai dispositiboak nahikoa finkatuak izatea, eta ondorioz ere, harremana edo elkarreragina ere nahikoa finkatua izatea. Egonkortasun hori da, nire ustez Unibertsitatean gertatzen denaren kausa.

Esan bezala, ikasleek badute *hizkuntza erabiltzen jakite oso bat* umetatik ikasia eta behin eta berriro gizarteak konfirmatua. Ikaskuntza horretan eragin handia izan du eremu akademikoak: umetatik ikasi dute ikasleek zein den eremu akademikoan hizkuntzak erabiltzeko arauak. Askoren eskarmentua da mundu akademikoaren eta bizi-munduaren hizkuntzak ez datozela bat. Kasu horietan, ikasten dute, beraz, ez erregistro formala eta ez-formala bereizten eta zein bere harreman eta praktika egokietan erabiltzen, ikasten dute, aitzitik, bi hizkuntza direla erregistro jokoan ari diren hizkerak. Zer iritzi dugu hizkuntza formala harreman ez-formaletan darabilen ume edo bati buruz? Zer inpresio sorrarazten digu?

Ikasketa hartan badakigu mundu txiki batetik abiatuta, gero eta handiagoak diren eremuetara jo behar dutela, baina finean egituraketa nagusia asko aldatu barik. Aldatzen doana, eta asko, ikasleen egokitze-gaitasuna da: moldatzetik, erreaktantziara; edo, bestela esan, ikasleek gero eta joko estrategiko finago eta konplexuagoetan hartuko dute parte. Ezarian joango dira kapitala metatzen, alegia, gaitasunak eta ahalmenak bere egiten: bere burua aurkezteko, bere helburuak erdiesteko, joko es-

**Gerta daiteke,
gertatzen denez,
bai disposizioak,
bai dispositiboak
nahikoa
finkatuak izatea,
eta ondorioz ere,
harremana edo
elkarreragina ere
nahikoa finkatua
izatea.
Egonkortasun
hori da, nire
ustez
Unibertsitatean
gertatzen
denaren kausa.**

**Unibertsitatera
heltzen direnean
curriculum
formal batekin
egingo dute topo
berehala, baina
haiek ekarriko
dute, neurri
handi batean,
egokitu beharko
duten curriculum
ezkuturako joera,
disposizioa
edota, hemen
darabilgun
terminoetan,
habitusa.**

trategikorako, egokitzeko, erabakiak hartzeko eta betetzeko... Unibertsitatera heltzen direnean curriculum formal batekin egingo dute topo berehala, baina haiek ekarriko dute, neurri handi batean, egokitu beharko duten curriculum ezkuturako joera, disposizioa edota, hemen darabilgun terminoetan, *habitusa*. Egokitze hartan hainbat alderdi hartuko dituzte kontuan: beste ikasleekiko harremanak, Unibertsitateko langileekiko harremanak, irakasleekin izango dituztenak, edota inguruko hizkuntza-pasaia, besteak beste. Horrenbestez, galdera nagusia honako hau da: Unibertsitatean hizkuntzak erabiltzen jakite hori inguru zehatz batean baieztatu eta egokitu behar dute, inguru aldaketarik egongo da edo ikasleek hautemango dute jarraipen hutsa? Bestelako logika eta arauzkotarik sumatuko dute Unibertsitateko harremanetan?

Heldu da hasieran planteatu dudan tesia gogorarazteko unea: ikasleen *habitus* linguistikoa euren *habitus* akademikoaren alderdi bat da. Eta orain erants diezaiokegu: ingurua aldatu ezean, *habitusa* ez da aldatuko. Zein da, beraz, *habitus* hura? Ibilbide sozial eta soziolinguistikoa anitz elkartzen dira Unibertsitatean, gure konplexutasuna ez da soilik bi hizkuntza ofizial eta hainbat erabilera arrunteko hizkuntzaren funtzio bat, eragile horiez gain, hizkuntza-ereduak eta herriz herri dauden desberdintasun linguistikoa ere baditugu. Beraz, nekez bil daitezke horiek gehienak *habitus* bakar batera. Hala ere, esango nuke *habitus* hura poliglosia egoerak kudeatzeko eta haietan trebe aritzeko jakintza praktikoa dela eta arau sinple batzuen inguruan ardaztu dela: harreman formaletan, alegia, erakundearekin edota erakundearen kontrol eta ebaluazioaren mende egiten diren jardunetan, euskara da nagusi, euskara da araua (euskarazko ereduetan ibili direnentzat); baina, erakunde-jokaerak ez direnetan etxean zein inguru hurbilean ikasitako hizkuntza erabiltzen da inguru berekotzat jo daitezkeen ikaskideekin. Jakina, azken honek esan nahi du gatzelera erabiltzera izango dela joera handiena, kopuru aldetik behintzat. Egoera bestela definitu ezean. Labur esan: erakunde-portaeran (ageriko eta formalizatutako alderdian) euskara nagusituko da arau argi eta ondo definitua denean, erakunde-portaeratik aldentzen garen neurrian, erdara nagusituko da (edo, inguruko hizkuntza ez-formala, askotan euskara ere izan daitekena).

Hori dena ez dute ikasi Unibertsitatean. Beharbada sumatu dute jokaera bera Unibertsitateko langileen artean: rol jokaera hutsean euskaraz aritzen direla, eta harreman pertsonalizatuetan, berriz, erdara nagusitzen dela; edota batzuek euskaraz jarduten dutela erakunde kanpoko portaeretan ohiko hizkuntza dutelako, edo balio berezia ematen diotelako jardun hari. Hori dena hizkuntza-dispositibo gisa hartuko dute. Nire

ustez, beraz, Unibertsitatera heltzen den orok badaki -berehala ikasiko du- zein den egiturazko hizkuntza eta zein den hautazkoa, zein den orokorra eta ezinbestekoa eta zein partikularra eta gehigarria. UPV/EHUko fakultate gehienetan antzeko eskarmentua dagoela esango nuke: erdara da hizkuntza nagusia eta behar-beharrezkoa, euskara partziala eta mendekoa. Iparraldeko ikasleek edota *Erasmus* programetan datozenek ondotxo dakite hau dena, bai eta euskaraz matrikulatu diren hegoaldeko ikasleek ere.

Horrenbestez, gehienetan lehenago ikasitakoa berretsiko dute: inguru akademikoan ezarritako hierarkiak, balioak, arauak, zentzuak... ez dira aldatu. Ez dute egokitzeko beharrik, jarraipen hutsa da. Eta bereganatu duten *habitus*ak bere horretan jarraituko du. Unibertsitatea ez da gehienentzat hizkuntza-merkatu berria. Baina egoerak eta ibilbideak denak berdinak ez direnez, badira talka egin eta egokitzapen ahalegin berezia egin behar dutenak. Kasu horietan, uste dut, baliabide arrunta dela harreman-zirkulu berezietara biltzea. Ez da, nire ustez, gaitasun linguistikoa eta hurbiltasun sozialaren ondorio bat, hizkuntza bat edo beste erabiltzeko disposizio praktikoa eta metapraktikoak nahasten dira fenomeno horietan. Hau da, jokoera eta harreman gune batzuetan ondo definiturik dago zein den erabili behar den hizkuntza eta nola, beste batzuetan negoziatu beharko da. Noski, erosoagoa da beti aurrez definiturik eta adosturik izatea.

Ikasleen disposizioak curriculum ezkutuko osagaiak dira. Esan liteke curriculum ezkutua dela sistema sozialaren ezaugarriek, mugek eta ahalmenek, konbentzioek eta ohiturek, unibertsitatera heltzeko eta bertan geratzeko duten modua. Gizarte-sistemak curriculum ezkutua ezartzen diola unibertsitateari, hizkuntzei dagokienez, ikasleen *habitus* akademikoen bitartez.

Unibertsitateak bere bereizgarritasun akademikoa ezarri eta nagusitu beharko luke bere esparruan. Baina ez da beti horrela. Gizarte-jokoan isla izaten da, eta hezkuntza-sistemaren jarraipena. Bereizgarritasun hori lortze aldera lehendabiziko urratsetako bat egoeraren definizioa egitea da. Eta hori, berez, alde askoren arteko joko estrategikoa izateaz gain, ez da beti berariaz lantzen den diskurtso eta praktika eragiketa. Uste dut oso presente eduki behar dugula hizkuntza-joko eta truke estrategikoetan onargarritasun soziala jokatzen dugula: balio eta zentzuaeren arteko oreka gaitzean. Bestela esan, hizkuntza erabilerak eta praktikak, moduak eta mailak, legitimatzen eta deslegitimatzten aritzen garela eta bide hartatik onargarritasun mailak ezartzen ditugula. Esparru for-

Labur esan:
erakunde-
portaeran
(ageriko eta
formalizatutako
alderdian)
euskara
nagusituko da
arau argi eta
ondo definitua
denean,
erakunde-
portaeratik
aldentzen garen
neurrian, erdara
nagusituko da
(edo, inguruko
hizkuntza ez-
formala, askotan
euskara ere izan
daitekena).

Unibertsitateak bere bereizgarritasun akademikoa ezarri eta nagusitu beharko luke bere esparruan. Baina ez da beti horrela. Gizarte-jokoan isla izaten da, eta hezkuntza-sistemaren jarraipena. Bereizgarritasun hori lortze aldera lehendabiziko urratsetako bat egoeraren definizioa egitea da.

mal eta publikoetan maila horiek oso zehaztuak eta aratuak izan daitezke, besteetan, berriz, nahasiak, edo negoziazio informalean bidez ebatziak. Unibertsitatea, beste edozein erakunde bezala, ez da eragintza duen subjektu bakun bat, eragintza duen eremu gatazkatsua baizik. Eragintza formalizatu ezean ez da norako argi eta zehatz batean arituko. Formalizazio hori da, hain zuzen, erakunde baten eginkizuna; hartarako eta hartan sortzen ditugu erakundeak. Baina, barne-gatazkek eta sakanatzeke joerek formalizazioa kaltetzeaz gain, erakunde-eragintza determinatzen dute. Hizkuntzen arloan ere ageriko iritziak ez datoz bat, isilpeko jarrerak ere ez; ageriko portaera askok ez dute ageriko helburuak lortzen laguntzen. Finean, mota guztietako erresistentziak eta joera galgarriak aurkituko ditugu unibertsitatearen gisako erakunde batean.

Ikus dezagun zein diren, eskematikoki, hizkuntza-adierazle eta adierazpideen onargarritasun sozialaren mailak. Ondoren pentsatu beharko genuke nola aurkezten eta adierazten duten bere burua ikasleek joko sozialetan: zer jartzen duten jokoan hizkuntza, hizkera edo adierazpide bat erabiltzen dute bakoitzean.

Funtsean hiru dira mailak:

- *Maila linguistikoaren onargarritasuna* (edo legitimitate pragmatikoa). Maila honen logika arau pragmatikoena da eta, idealiki, logika horren helburua truke egitura bera eta erreal komuna partekatzea izango litzateke. Hemen daude onartu diren hizkuntza-moduak, eta egokitasunaren printzipioa da nagusi. Baina egokitasuna irizteko hainbat bide daude, esaterako, euskaraz adierazkortasuna lortze aldera askotan egokitzen jotzen da erdarazko adierazpideak erabiltzea. Esan barik doa, egoera linguistiko hura egitura sozialek ezarritako hierarkia batekin doa; hau da, hurrengo mailaren egiturek ezarritakoaren mende.
- *Maila soziologikoaren onargarritasuna* (edo legitimitate soziolinguistikoa): *habitus* kontzeptuaren haritik, hemen erregulazioa arau sozio-pragmatikoaren eginkizuna da; bestela esan, egitura sozialak norberaren hizkuntza-gaitasunetan gorpuzturik. Aurrekoari erabat loturik dago, jakina. Baina hemen egitura sozialak hartuko genituzke kontuan. Ondo ikusten da egituren eragin hurakode hautaketan (eta kode aldaketan). Izan ere, testuinguruak eta testuinguruko arauak zehazten dute kode, hizkera, keinu eta abarren legitimitatea. Ondo ulertzeko, bai egitura, bai hierarkia eta kapital zein botere banaketa, eremu kontzeptuan sartu beharko genituzke: eremu batean hainbat indar ari dira, indar izan daitezzen bere burua bereizi

eta sendotu behar dute, hartan, eremuko harremanak erakarri behar dituzte eta aldi berean bereizgarritasun adierazkorra landu. Ideologiak sartzen dira horretan.

- *Maila ideologikoaren onargarritasuna* (edo legitimitate ideologikoa): hemen balio ideologikoa ditugu; bai proiektu gisa, bai balio-kode gisa; alegia, hizkuntza eta hizkuntza praktiken gaineko sinesmen antolatua eta balio kontzienteak artikulatzeko borroka sozio-erretorikoa.

Azaldutakoa hizkuntza baten kasuan edo ele anitzeko egoeretan aurkituko dugu, egoera mononomikoan edo polinomikoan. Baina gure ikasleek hizkuntzen arteko jokoarekin egiten dute topo, eta horretan egin behar dute egoeraren definizioa: balio ideologiko, egitura soziologiko eta arau pragmatikoen arabera ebatzi behar dute noiz, nola, zertarako eta norekin erabili hizkuntza bat edo beste. Hor jokatu behar dituzte euren gaitasun praktikoak eta euren jakintza metapraktikoak erabili.

Maila horietan nola egin lan aldaketak nahierara sor daitezten? Hori da, azken finean, gogoeta honen muina. Oso labur esan daiteke gakoa sen sozialak aldatzea dela. Atalez atal:

- Maila linguistiko-pragmatikoa deitu dudan hartan, zuzenean gaitasunetan eragin behar da, are gehiago gaitasun horiek curriculum formaletako eskakizunak direnean. Hor irakaskuntzak berak bermatu behar dio ikasleari beharrezko mailara helduko dela eta gainera hala dela eta hala ebaluatuko dela jakinarazi behar dio. Unibertsitatearekin duen hitzarmenaren betebeharrekoa da, irakaskuntzaren kalitateari loturikoa. Unibertsitateari dagokio, prestakuntza hura bermatzea irakaskuntzan bertan.
- Maila soziolinguistikoan Unibertsitateak autonomia behar du, bestela esan: inguruko gizartean dauden egiturazko eraginak gainditu behar ditu eta hizkuntza-praktiketan ere joko gune berezia sortu behar du. Esan bezala, trebetasunak dira eta curriculum formala da tresna eta azken finean konpromisoa; baina, hizkuntza-joko berezia sortzeko alboko curriculum eta, oro har, unibertsitateko bizitza kontuan hartu behar ditu. Hartan, egoera soziolinguistiko berriak definitu behar ditu: formalak (irakaskuntzari lotuak, zerbitzu formalak barne) eta informalak (unibertsitate-bizitzari zein harreman ez-formalei lotuak). Bietan, beraz, praktika-ingurune propioak sortu behar ditu. Behar besteko barne-adostasunik eta legitimitaterik al du?
- Maila ideologikoan landu behar da legitimitatea, baina bistan da ez dela soilik diskurtso edo propaganda kontua. Legitimitatea egin behar

Zuzenean gaitasunetan eragin behar da, are gehiago gaitasun horiek curriculum formaletako eskakizunak direnean. Hor irakaskuntzak berak bermatu behar dio ikasleari beharrezko mailara helduko dela eta gainera hala dela eta hala ebaluatuko dela jakinarazi behar dio. Unibertsitatearekin duen hitzarmenaren betebeharrekoa da, irakaskuntzaren kalitateari loturikoa.

**Unibertsitateak
badu
erantzukizun
argia
irakaskuntza eta
prestakuntza
arloan, badu
erantzukizun
argia horiek
bermatzen dituen
giroa sortzean,
badu, azkenik,
konpromiso eta
erantzukizuna
gizartearekin.**

diren edo egiten diren jokaeren, praktiken, harremanen zentzua sentitzea da. Goitik behera zeharkatzen du sentitze honek maila guztiak. Baina maila honetan berariaz lantzeko eginkizuna dugu: zuzenean egiturari eragitea bai diskurtsoz, bai alde anitzeko komunikazioaren bidez.

5. GOGOETAN JARRAITZEKO ZENBAIT ILDO

I Bistan da, curriculum ezkutua *habitusen* “erreprodukzioarekin” identifikatu badugu, aldaketa *collusioen* aldaketarekin berdindu beharko dugu. Goiko mailaketan aletu ditut maila bakoitzeko aldaketa-gaiak, bakoitzean zeri eragin beharko geniokeen aldaketarik sortze aldera: gaitasunen trebakuntza (praktika linguistikoak), egoera soziolinguistikoen definizioak (metapraktikak eta haiei dagozkien egituraketa sozialak), onargarritasunaren diskurtsoa (balioen eta zentzuen sistematizazioa eta hedapena).

Baina gaiarekin edo aldaketa objektuarekin batera, aldaketaren eragileak eta subjektuak ere zehatu beharko genituzke. Egia esan, helburu hori gogoeta honen helburutik kanpo dago eta beste batean landu beharko dut. Hala ere, zerbait esan nahiko nuke.

Habitat linguistikoa aldatzeko, *habitusetan* egin behar dugu lan eta *habitusak* aldatzeko habitatean. Bourdieuk egituraketa bikoitzaz hitz egin zuen: jendarteko dispositiboak eta norberaren dispositzioak. Bietan eragin behar da, aldi berean “norberaren *habitusen*” eta “habitat-*collusioan*”. Hizkuntza-egiturak (eta oro har, jendarte-egiturak) haragiztatze psikosozialak dira. Jendarteko jokaerek jendearen jokaerak egituratzen dituzte, jendearengan nortuta (hots, norbera eginda) agertzen zaizkigu eta horregatik haiek aldatzeko prozesuak beti izaten dira haragiztatze-prozesuak. Horietan, gutxienez honako alderdi hauek aurkituko ditugu: berrikuntzak edo aldaketen genesi minoritarioa, portaera gutxituen edo gutxietsien aurkezpen publikoa, gatazka soziokognitiboa, berrikuntzen edo aldaketen legitimazio diskurtsiboa (zentzu onartuekin artikulatuz, berriak sortu), legitimazio praktikoa (praktikaren senari erantsi), ikaste eta konbertsio prozesuak, norik bereganatzea eta senez eta eginez bere egitea, berrikuntzaren erabilera arrunta eta egitura(keta) berria. Halako prozesu gehienak minoria aktiboen psikologia sozialekoak dira, zer esanik ez. Haiei begiratu behar diegu tentuz, haiekin egin behar baitira aliantzak, haiei erraztu behar zaizkie praktika minoritarioen aurkezpen publiko eta legitimorako praktika-inguruneak (hedapen eta ex-posizio sistematikorako mikro-inguru edo jokagune irekiak eta publikoak). Eta praktikei gagozkiela, eremu ez-formalizatuetan jokaera minoritarioak

arauzko eta zentzuzko gisa ager daitezen praktika-eremu bereziak sortu behar dira, edo haiek sor ditzaketela erraztu. Hitz bakar batez: egoerak praktiken bidez, praktikoki, definitu behar da.

Goikoarekin bat eginez, egituraketa bikoitza eraldatzeari ekiteko, bi bide aurkituko ditugu. Batetik, komunikazio-ekintzak: zentzu berriak berariaz lantzea (diskurtsoa: justifikazio publikoak eta “arrazoi onak” landu). Eta bestetik, hitzarmenak lantzea (aldaketarako norberaren atxikimendua habitat berriei). Unibertsitateak badu erantzukizun argia irakaskuntza eta prestakuntza arloan, badu erantzukizun argia horiek bermatzen dituen giroa sortzean, badu, azkenik, konpromiso eta erantzukizuna gizartearekin. Erronka, beraz, erantzukizun horientzako dispositiboak sortuz dispositioak aldatzea da: dispositiboak, gogora dezadan, jendarteko egituraketak dira eta ikusi dugunez, formalak beti izaten dira erakunde baten alderdi partzial eta mugatua, ez-formaletan ezin da zuzen-zuzenean eragin. Baina edozein aldaketa iraunkorren gakoa praktika bera denez, hau da, praktika onartuak eragile seguruenak direnez, zeharka sortu beharko ditu alderdi ez-formalerako eta curriculum ezkuturako euskarazko praktika-guneak eta euskarazko praktiken (konpromiso) sareak. ●

OHARRAK

1. 2011ko V. Inkesta Soziolinguistikoak ere antzeko zerbaite zioen: “EAEn ere euskararen erabilerak gora egin du erabilera-eremu guztietan, etxeanizan ezik. Etxeko erabilerak oso gorabehera txikiak izan ditu azken 20 urteotan, eta % 17aren bueltan ibili da 1991 eta 2011 bitartean (...) Etxetik kanpo, lagunekin (% 21,8), lankideekin (% 24,5), udal zerbitzukoekin (% 24,8) eta osasun-zerbitzukoekin (% 19,8) argi eta garbi egin du gora euskaraerdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoak” (Eusko Jaurlaritza, 2013a: 47). Ez dakit kopuru horiek esanguratsuak diren, baina antza denez, gehiago erabiltzen da (EAEn) euskara udaletzeko zerbitzuekin ditugun harreman formaletan, etxeokoen edo lagunekin baino: harreman formalizatuak ote dira euskararen indarguneak? Gainera, joera argian igo da esparru horietako erabilera (ikus. V Inkesta Soziolinguistikoan 46 or. eta hurrengoak).
2. Rossi-Landi (1968) ere aipatu beharko nuke, aitzindaria izan baitzen ekonomiaren kontzeptuak (merkatua eta kapitala) hizkuntzari aplikatzen, marxismotik hurbil.

BIBLIOGRAFIA

- Apple, M. (1979). *Ideología y currículo*. Madrid, Akal.
- Apple, M. (1987). *Educación y poder*. Barcelona, Paidós.
- Bourdieu, P. (1980). *Le sens pratique*. Paris, Éditions de Minuit.
- Bourdieu, P. (1982). *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*. Paris, Fayard.
- Bourdieu, P. (1984). *Langage et pouvoir symbolique*. Paris, Seuil.
- Bourdieu, P. (1987). “Espace social et pouvoir symbolique” in *Choses dites*. Paris, Minuit.
- Bourdieu, P. (1994). *Raisons Pratiques. Sur la théorie de l'action*. Paris, Seuil.
- Bourdieu, P. (1997). *Méditations pascaliennes*. Paris, Seuil.

- Bourdieu, P. (2002). "El mercado lingüístico" in *Sociología y cultura*. Mexiko, Grijalbo, Conaculta. (143-158 or.).
- Bourdieu, P. eta Passeron, J. (1970). *La Reproduction. Éléments pour une théorie du système d'enseignement*. Paris, Éditions de Minuit.
- Bourdieu, P. eta Passeron, J. (1964). *Les Héritiers. Les étudiants et la culture*. Paris, Éditions de Minuit.
- Bruner, J. (1990). *Acts of Meaning*. Cambridge, MA, Harvard University Press.
- Calhoun, C. (1993). "Habitus, Field and Capital: The Question of Historical Specificity" in C. Calhoun, E. LiPuma eta M. Postone (arg.). *Bourdieu: Critical Perspectives*. Chicago, University of Chicago Press.
- Corcuff, Ph. (2003). *Bourdieu autrement, fragilités d'un sociologue de combat*, Paris, Textuel.
- Crossley, N. (2001). "The Phenomenological Habitus and its Construction", *Theory and Society* 30(1): 80–120.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Hizkuntza Politika eta Kultura saila eta Soziolinguistika Klusterra (2013). *Ikasleak Hitzun. 2011ko Arrue Proiektua*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Farrugia, D. (2013). "The Reflexive Subject: Towards a Theory of Reflexivity as Practical Intelligibility", *Current Sociology* 61(3): 283–300.
- Farrugia, D. eta Woodman, D. (2015). "Ultimate concerns in late modernity: Archer, Bourdieu and reflexivity", *The British Journal of Sociology*. Volume 66, 4, 626-644.
- Jackson, P. W. (1968). *Life in Classrooms*. New York, Holt, Rinehart and Winston.
- Jenkins, R. (1992). *Pierre Bourdieu*. New York, Routledge.
- Lahire, B. (1998). *L'Homme pluriel. Les ressorts de l'action*. Paris, Nathan.
- Lahire, B. (2003) "From the Habitus to an Individual Heritage of Dispositions. Towards a Sociology at the Level of the Individual", *Poetics* 31: 329–55.
- Rossi-Landi, F. (1968). *Il linguaggio come lavoro e come mercato*. Milano, Bompiani.
- Snyder, B. R. (1970). *The Hidden Curriculum*. Alfred A. Knopf.
- Stolz, J. (2007). *La théorie du choix rationnel et la sociologie des religions* in Bastian, J. (arg.) *Pluralisation religieuse et logique de marché*. Berna, Peter Lang (or. 61-78).
- Woods, S. P. (1998). *Investigar el arte de la enseñanza. El uso de la etnografía en la educación*, Bartzelona, Paidós.